

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Zer diozue Piarresen eta Txatuarren?
2. Samur diruz Ortzango egitearen gaitik?
3. Zer diozue Batixtak eta Mattinek?

(I) Piarresen Igandea - Biharramunean - 7

Piarres bere jauntzia bizkarretik, adixkide multzo baten erdian hirriz heldu zen, Elizabiderat buruz. Eta huna non Ortzango erre-kako itsasuarra hurbiltzen zaión, maltzur maltzurra:

“-Biba hi, Piarres! Atseginekin ikusten diat hire esku-muthurrak ez ditukala oraino oro Ortzango errekan utziak.

-Ortzango errekan? Esku-muthurrak?

-Ba, esku-muthurrak, eta zango-aztalak... Ez entzunarena egizak orai!

-To, emadak bakea... Hola balitz ere, zer da gero? Ortzango erreka zuentzat behar baduzue, utzezatzue Atheka<sup>39</sup> legunak edo oraino Atheka-gaitzak. Hauta<sup>40</sup> emaiten dautzuet; bainan utz niri arratz-xiloaren itikiko xilo bat. Ilura askiko diat... Ni hola bilhatze-eta musikatzeko<sup>41</sup> orde, haugi<sup>42</sup> to gurekin afaltzera eta musean gero partida baten egitera. Hlogoi libera, lehen seiatarik, biga bier. Bahaiza?

-Bagaituk. Goazen berehala, eta ez hadiela samur!”

...

Oren laurden baten buruan, aldaturik, Piarres gaineko barne handian sartu zelarik, baziren jada han edale zonbeit. Bi bordari zahar, botoila baten aintzinean, buruaz elgar hunkitzeko heinean bat bertzearenganat kurtuak<sup>43</sup>, persuka ari ziren, bertzerik sekulan egin ezpalute bezen deskantsuz.

BATIXTAK

Erranen derautzut, Mattin, iduri zautala  
Arno onak parerikan munduan ez duela;  
Urean bizi baitu errekan igela,  
Igel geldituren duzu, bethi hala hala...

MATTINEK

Igelak egundainotik ura du maitatzen,  
Etxe arno on huntarik ez baitu jastatzen;  
Mama gorritik behin balu hurrupatzen,  
Balakike ostatura bi jauziz ethortzen...

Xoko batean, bere laguna kanporat orduan atheraturik, bertze gizon zahar bat, kokotsa ahur<sup>44</sup> barnean emanik, mundu huntan egin ahala errepikan ari zen:

“Gaztetasunak bainerabila

Nola airean iñhara<sup>45</sup> !!!...”

Goraxko harturik airea, ezin bururatu zuen, eta kolpe bat edan; laguna berriz itzuli artean...

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Hola balitz ere 32. Utzezatzue  
33. Behin balu 34. Balakike

31. IZAN - Suppositif Eventuels

1 <sup>ere</sup> Forme (si j'étais)	2 <sup>eme</sup> Forme (si j'avais etc.)
Ni izaiten banintz	izan banintz
Hi - " - bahintz	- " - bahintz
Zu - " - bazine	- " - bazine
Hura - " - balitz	- " - balitz
Gu - " - bagine	- " - bagine
Zuek - " - bazinezte	- " - bazinezte
Heik - " - balire	- " - balire

32. UKAN - Imperatif

Objet singulier	Objet pluriel
Hek ukan zak / m = aie - le	Ukan zkit / m = aie - les
Zuk - " - zazu = ayez - le	" zaitzu (1) = ayez - les
Harak - " - beza = qu'il l'ait	" bitza = qu'il les ait
Guk - " - dezagu = ayons - le	" ditzagu = ayons - les
Zuek - " - zazu = ayez - le	" zatzue (2) = ayez - les
Heiek - " - bezate = qu'ils l'aient	" bitzate = qu'ils les aient

(1) zaitzu ou zkitzu ; (2) zatzue ou zkitzue

33. UKAN Suppositif 1<sup>ere</sup> forme

Nik banu = (si je l'avais)	banitu = (si je les avais)
Hek bahu	bahitu
Zuk bazinu	bazinitu
Harak balu	balitu
Guk baginu	baginitu
Zuek bazinute	bazinute
Heiek balute	balinute

Objet singulier                      Objet pluriel